

ATZERRIKO HIZKUNTZAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

Urteko programazio didaktikoa

Ikastetxea:	Bentades Ikastetxea	Kodea:	014777	Ikasmaila:	6. maila
Etapas:	Lehen Hezkuntza	Ziklo-maila:	3. zikloa, Lehen Hezkuntzako 6. maila		
<ul style="list-style-type: none"> • Arloa/Gaia • Eremua • Diziplinarteko proiektua • Beste batzuk 	Atzerriko hizkuntza	Irakasleak:	Maitane Jaio eta Ane Ugarte.		

Programazio didaktikoaren justifikazioa

Programazioan garrantzitsuak diren erabakiak argudiatzea eta, horretarako, honako alderdi hauek kontuan hartzea: ikasleen abiapuntua, ikasgelaren testuingurua, ikastetxearen proiektuak, urteko memoriatik eratorritako hobekuntza proposamenak, etab.

Programazio didaktikoaren justifikazioa:

Urteko programazio didaktikoa irakaskuntzako jarduera profesionalaren parte da, eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua hobetzearekin lotuta dago. Funtsean, ikasleen beharrak eta ezaugarriak balioesten dituen helburu bat da, garatu nahi diren konpetentziak aztertzen dituen. Ondorioz, ikasleek arrakasta izateko ahalik eta itxaropen handienak garatzeko irakasle talde batean hartzen diren erabakiak zehazten dituen.

Oinarrizko irakaskuntzaren amaierako Ikasleen irteera-profila da Euskadi Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaren printzipioak eta helburuak zehazten dituen tresna. Profilak identifikatu eta definitzen du, ikasleek beren prestakuntza-ibilbidearen aldi hori amaitzean lortu nahi dituzten funtsezko konpetentzien garapen-maila, etengabeko ikaskuntza-prozesuaren zati gisa.

Irteera-profilaren abiapuntua da konpetentzia giltzarrien ikuspegi estrukturala eta funtzionala aldi berean, eta hori eskuratzea

ezinbestekotzat jotzen da ikasleek beren garapen pertsonalerako, beren bizitzako esparruetako egoerak eta arazoak konpontzeko, hobetzeko aukera berriak sortzeko, bai eta haien sozializazioa garatzeko, prestakuntza-ibilbidearen jarraipena lortzeko eta gizartean eta ingurune naturalaren eta planetaren zaintzan aktiboki txertatzeko eta parte hartzeko ere. Proiektu hori ikaskuntza desberdinen elementu artikulatzailea da, eta, horri esker, zenbait erronkei aurre egin ahal izango die.

Oinarrizko irakaskuntza arrakastaz gainditzen duen ikasle orok, eta, beraz, irteera-profila lortzen duenak, eskuratutako ikaskuntzak mobilizatzen jakitea bermatu nahi da, bizitzan zehar izango dituen erronka nagusiei erantzuteko. Horren barruan sartzen dira:

- Jarrera arduratsua garatzea, ingurumenaren degradazioaren kontzientzia hartuz, hura eragiten, larriagotzen edo hobetzen duten arrazoien ezagutzan oinarrituta, ikuspegi sistemiko batetik, tokikoa zein globala.
- Kontsumo arduratsuarekin lotutako alderdiak identifikatzea, norberaren eta guztion ondasunean duten eragina baloratzea, beharrak eta gehiegikeriak kritikoki epaitzea eta kontsumitzaile gisa dituen eskubideen urraketan aurrean kontrol soziala egitea.
- Bizi-ohitura osasungarriak garatzea, organismoaren funtzionamendua ulertuta eta organismoan eragina duten barneko eta kanpoko faktoreei buruzko hausnarketa kritikoa eginda, osasun publikoa sustatzeko erantzukizun pertsonala bere gain hartuta.
- Sentsibiltatea lantzea ekitaterik eza eta bazterketa egoerak atzemateko, kausa konplexuak ulertuta, enpatia- eta erruki-sentimenduak garatzeko.
- Gatazkak gizarteko bizitzaren berezko elementu gisa ulertzea, modu baketsuan konpondu beharrekoak.
- Egungo gizarteak eskaintzen dituen era guztietako aukerak modu kritikoan aztertzea eta baliatzea, bereziki kultura digitalarenak, onurak eta arriskuak ebaluatuz eta bizi-kalitate pertsonala eta kolektiboa hobetzen lagunduko duen erabilera etiko eta arduratsua eginez.
- Ziurgabetasuna, erantzun sortzaileak artikulatzeko aukera gisa onartzea, berekin ekar dezakeen antsietatea maneiatzen ikasiz.
- Gizarte ireki eta aldakorretan lankidetzan aritzea eta elkarrekin bizitzea, aniztasun pertsonala eta kulturala aberastasun-iturri gisa baloratuz eta beste hizkuntza eta kultura batzuekiko interesa agertuz.
- Proiektu kolektibo baten parte sentitzea, bai tokiko eremuan, bai esparru globalean, enpatia eta eskuzabaltasuna garatuz eta guztion onerako erabaki koherenteak bultzatuz eta hartuz.

- Bizitzan zehar ikasten jarraitzeko aukera emango dioten trebetasunak garatzea, ezagutzan konfiantza izanik, garapenaren motor gisa, eta ezagutzaren arrisku eta onuren balorazio kritikoa eginez.

Erronka horiei eta beste batzuei erantzuteko, funtsezko konpetentzien azpian dauden ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak behar dira, eta curriculumak osatzen duten arlo, eremu eta jakintzagai guztietan lantzen dira. Horiek eskaintzen dituzten curriculum-elementuek ikasleei beren inguruan gertatzen dena ulertzen laguntzen diete, eta, horrela, egoera kritikoki baloratzeko eta behar bezala erantzuteko aukera ematen diete.

Hemen aurkezten den curriculumak konpetentzia-ikuspegia du, eta bertan, erronkei aurre eginez eskuratzen dira edukiak, kontzeptuzkoak, prozedurazkoak eta jarrerazkoak. Horrek ikaskuntzak eskuratzea eta mobilizatzea eta horiek transferitzeko gaitasuna bultzatzen du, eta, horrela, ikasleen prestakuntza-bilakaeran heldutasun-maila eta kalitate handiagoko ikaskuntza garatzen da.

Hurrengoak dira eskuratu beharreko funtsezko konpetentziak:

- **Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia:** Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziak esan nahi du hainbat esparru eta testuingurutan modu koherente eta egokian elkarrekintzan jardutea, ahoz, idatziz, siglatuan edo multimodalean, eta hainbat komunikazio-helbururekin.
- **Konpetentzia eleaniztasuna:** Konpetentzia eleaniztunak hainbat hizkuntza, ahozkoak edo zeinuzkoak, ikasteko eta komunikatzeko modu egoki eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen du.
- **Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzako konpetentzia:** Matematikarako konpetentziak eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentziak mundua ulertzea dakar berekin, metodo zientifikoak, pentsamendu eta irudikapen matematikoak, teknologia eta ingeniartzako metodoak erabiliz ingurunea modu konprometituan, arduratsuan eta jasangarrian eraldatzeko.
- **Konpetentzia digitala:** Konpetentzia digitalak teknologia digitalak modu seguruan, osasungarrian, jasangarrian, kritikoa eta arduratsuan erabiltzea eskatzen du, ikasteko, lanerako eta gizartean parte hartzeko, bai eta horiekin elkarreragitea ere.
- **Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa:** Konpetentzia pertsonalak, sozialak eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko.

- **Herritartasunerako kompetentzia:** Herritartasunerako kompetentzia lagungarria da ikasleek herritartasun arduratsua izan dezaten eta bizitza sozial eta zibikoan bete-betean parte har dezaten, kontzeptu eta egitura sozial, ekonomiko, juridiko eta politikoen ulermenean oinarrituta.
- **Ekintzaitza kompetentzia:** Ekintzaitzarako kompetentziak aukera eta ideiekin jarduteko bizi-ikuspegia garatzea eskatzen du, beste pertsona batzuentzako baliozko emaitzak sortzeko beharrezkoak diren ezagutza espezifikoak erabiliz.
- **Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako kompetentzia:** Kontzientzia eta kultura adierazpenetarako kompetentziak berekin dakar ideiak eta esanahia sormenez adierazteko eta kultura desberdinetan komunikatzeko modua ulertzea eta errespetatzea.

Justifikazio legala aldera batera utziz, eskolako testuinguruari buruz hitz egingo dugu. Bentades Ikastetxea Mungian kokatzen den eskola bat da, uribe kosta zonaldean. Eskola honetako familiak maila sozioekonomiko ertaina dute eta datu soziolinguistikoei dagokienez esan dezakegu nahiz eta Mungia herri euskalduna izan, gero eta etorkin gehiago daudela eta hau ikastetxean isladatzen da.

Ikastetxe honetan 700 ikasle inguru ditugu haurtzaindegitik hasi eta derrigorrezko bigarren hezkuntza bukatu arte. Maila bakoitzean bi lerro daude. Ikasketak D ereduan gauzatzen dira.

Ikastetxeko baliabide materialak hurrengoak dira Lehen Hezkuntzan. Ikasle talde bakoitzak bere gela dauka eta horrez gain, musika gela, plastika gela, liburutegia, jantokia eta areto nagusia ditugu. Solairu batetik bestera igotzeko behar izatekotan igogailu bat daukagu. Beste alde batetik, heziketa fisikoa egiteko patioaz gain, eskolako sotoa eskuragarri daukagu. Hura espazio oso handia eta estalia da. Normalean heziketa fisikorako erabiltzen da baina antzerkiak edo tailerrak egiteko ere erabilgarria izan daiteke.

Beste alde batetik, geletako baliabide materialak hurrengoak dira. Ikasgela guztietan bi arbel ditugu: klarionazkoa eta digitala. Ikasleek liburuak dituzte zenbait irakasgaietan baina ingurune eta euskerako arloetan adibidez guk sortutako materialarekin lan egiten dute. 3.zikloan, aldiz, ikasle bakoitzak bere Chromebooka dauka eta liburu gehienak era digitalean dituzte.

Baliabide pertsonalei dagokienez, Lehen Hezkuntzan 15 irakasle daude tutore eta irakasle espezifikoak gehituz. Beste alde batetik, orientazio talde bat dugu eta bertan 6 espezialista daude. Horrez gain eskolako orientatzaile eta psikologoa dugu behar izatekotan. Irakasleak ez diren beste profesional batzuk ere lan egiten dute eskolan gure egunerokotasuna errazago izateko, adibidez: jantokiko

langileak, eskolako atezainak, idazkariak, zuzendariak, eta abar.

Ikasle batzuen beharrezanean erantzuna emateko Berritzegunetik ere zenbait espezialista etortzen dira eskolara, adibidez: logopega, fisioterapeuta, eta abar.

Eskolan zenbait proiektuetan murgilduta gaude baina maila honetan ikasleek ez dute denetan parte hartzen. Hurrengoak dira:

- Agenda 30.
- Euskera eta normalkuntza
- Hizkuntza hirueleduna
- Bizikidetza
- IKT eta metodologia berriak
- Hezkidetza

Pasaden kurtsoko urteko memorian argitaratu zen bezala, hurrengoak dira etapa moduan ikasturte honetara begira planteatu genituen hobekuntzak:

- Metodologiari dagokionez, berrikuntzak sartzen jarraitu nahi dugu eta hasitako hobekuntza bidearekin jarraituko da.
- Euskerarekin lotuta gabezia ugari identifikatu ditugu eta hauei erantzuteko metodologia aldaketa bat proposatu da. Kurtso honetan zehar, irakasleok sortuko dugu materiala ziklo bakoitzari egokituta. Era horretan, ikasleak modu dinamiko eta erakargarrian hizkuntza bereganatu dezaten.

Programazio honen kalitatea eta emaitza bermatzeko, helburu errealistak ezarri behar ditugu. Horretarako irakasgai hau ematen duten irakasleak batu dira eta haien ikasleen errealitatera moldatu.

Kurtso honetan, beste guztietan bezala bi lerro ditugu. Gela batean 26 ikasle daude eta bestean 25. Ikasle gehienak testuinguru euskaldun batean hasiak dira, atzerritar bi ditugugela bien artean. Horietariko bat orain dela 5 urte hasi zen eskolan, beraz hizkuntzan zailtasunak eduki arren, oinarritzakoa menperatzen du. Beste ikasle atzerritarra pasaden kurtsoan etorri zen eta beraz,

oinarrizkoa oraindik ez du menperatzen.

Beste alde batetik, premia bereziko 7 ikasle ditugu gela bien artean banatuta. Hauek J.P.P.a (jarduera plan pertsonalizatua) dute eta moldaketak egiten zaizkie, bakoitzari bere beharrianetara. Hala ere, ikasle hauek orientazio departamentuko irakasleengatik ere laguntza jasotzen dute gela barnean, haien ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

Gure helburua ikasleek era dinamiko batean oinarritzko jakintzak eta konpetentziak lantzea da pertsona arduratsu, autonomo, sortzaile eta kritikoak bihurtzeko. Bide hori jarraitu ahal izateko programazio hau haien beharrianetara moldatuta dago.

Curriculum-plangintza

Ikaskuntza egoeren izenburua (IkE)	Arloak, gaiak, eremua	Konpetentzia espezifikoak 1. ERANKSINEAN daude azalduta	Ebaluazio-irizpideak 2. ERANSKINEAN daude azalduta	Oinarrizko ezagutzak 3. ERANSKINEAN daude azalduta
LEHENENGO HIRUHILEKOA				
Why have we got different hobbies?	Ingelesa	<p style="text-align: center;">1</p> <p>HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.</p>	<p style="text-align: center;">1.1 1.2</p>	<p><u>A.Komunikazioa</u> A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.8 A.9 A.10 A.11 A.13 A.14</p> <p><u>B.Eleanistazuna</u> B.2 B.4 B.5</p> <p><u>C.Kulturartekotasuna</u></p>
		<p style="text-align: center;">2</p> <p>HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.</p>	<p style="text-align: center;">2.1 2.2 2.3</p>	
		<p style="text-align: center;">3</p> <p>HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.</p>	<p style="text-align: center;">3.2</p>	

				C.1 C.2 C.4 C.5 C.6
		4 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.	4.1 4.2	
		5 HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1	5.2 5.3	
		6 HKK2, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.	6.2 6.3	
Why do landscapes change?	Ingelesa	1 HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.	1.1 1.2	<u>A.Komunikazioa</u> A.1 A.2 A.3 A.4 A.5

		<p>2 HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.</p>	<p>2.1 2.2 2.3</p>	<p>A.8 A.9 A.10 A.11 A.13 A.14</p>
		<p>3 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.</p>	<p>3.2</p>	<p><u>B.Eleanistazuna</u> B.2 B.4 B.5</p>
		<p>4 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.</p>	<p>4.1 4.2</p>	<p><u>C.Kulturartekotasuna</u> C.1 C.2 C.4 C.5 C.6</p>
		<p>5 HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1</p>	<p>5.2 5.3</p>	
		<p>6</p>	<p>6.2 6.3</p>	

		HKK2, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.		
BIGARREN HIRUHILEKOA				
Why do people like living in cities?	Ingelesa	1 HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.	1.1 1.2	<u>A.Komunikazioa</u> A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.8 A.9 A.10 A.11 A.13 A.14 <u>B.Eleanistazuna</u> B.2 B.4 B.5 <u>C.Kulturartekotasuna</u> C.1
		2 HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.	2.1 2.2 2.3	
		3 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.	3.2	

		<p>4 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.</p>	<p>4.1 4.2</p>	<p>C.2 C.4 C.5 C.6</p>
		<p>5 HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1</p>	<p>5.2 5.3</p>	
		<p>6 HKK2, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	<p>6.2 6.3</p>	
Why do we build skyscrapers in cities?	Ingelesa	<p>1 HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.</p>	<p>1.1 1.2</p>	<p><u>A.Komunikazioa</u> A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.8</p>
			2.1	

		<p>2 HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.</p>	<p>2.2 2.3</p>	<p>A.9 A.10 A.11 A.13 A.14</p>
		<p>3 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.</p>	<p>3.2</p>	<p><u>B.Eleanistazuna</u> B.2 B.4 B.5</p>
		<p>4 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.</p>	<p>4.1 4.2</p>	<p><u>C.Kulturartekotasuna</u> C.1 C.2 C.4 C.5 C.6</p>
		<p>5 HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1</p>	<p>5.2 5.3</p>	
		<p>6 HKK2, HKK5, KE3, KD1,</p>	<p>6.2 6.3</p>	

		KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.		
HIRUGARREN HIRUHILEKOA				
Why do we have to do housework?	Ingelesa	1 HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.	1.1 1.2	<u>A.Komunikazioa</u> A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.8 A.9 A.10 A.11 A.13 A.14 <u>B.Eleanistazuna</u> B.2 B.4 B.5 <u>C.Kulturartekotasuna</u> C.1 C.2
		2 HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.	2.1 2.2 2.3	
		3 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.	3.2	
			4.1	

		<p>4 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.</p>	4.2	C.4 C.5 C.6
		<p>5 HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1</p>	5.2 5.3	
		<p>6 HKK2, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1, KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.</p>	6.2 6.3	
Why can't we predict the future?	Ingelesa	<p>1 HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, KD1, KPSII5, HK4, KAKK2.</p>	1.1 1.2	<u>A.Komunikazioa</u> A.1 A.2 A.3 A.4 A.5 A.8
		<p>2</p>	2.1 2.2	

		HKK1, HKK3, HKK5, KE1, KE2, STEM 4, KD2, KD3, KPSII5, EK1, KAKK4.	2.3	A.9 A.10 A.11 A.13 A.14
		3 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KD2, KD3, KD4, KPSII1, KPSII3, HK3, EK1, KAKK4.	3.2	<u>B.Eleanistazuna</u> B.2 B.4 B.5
		4 HKK1, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM4, KPSII1, KPSII3, EK1, KAKK1.	4.1 4.2	<u>C.Kulturartekotasuna</u> C.1 C.2 C.4 C.5 C.6
		5 HKK1, KE1, KE2, KD2, KPSII1, KPSII5, EK1	5.2 5.3	
		6 HKK2, HKK5, KE3, KD1, KD2, KD3, KPSII1,	6.2 6.3	

		KPSII3, HK3, KAKK1, KAKK3.		
--	--	-------------------------------	--	--

Erabaki metodologikoak

Estrategiak eta metodoak, hizkuntzen tratamendua, IDU, ikasleen eta irakasleen antolamendua, espazioen eta baliabideen erabilera, anistazunari erantzuna, etab.

A. Jarraibide metodologikoak:

A.1. Eredu metodologikoak: Ikasleek ingelesa ahozko zein idatzizko komunikazio-tresna gisa erabiltzea da helburu nagusia. Funtsezko gaitasunak garatu nahi dira, hala nola ahozko eta idatzizko ulermena, ahozko eta idatzizko adierazpena, eta hizkuntzaren erabilera testuinguru errealetan. Macmillan editorialeko liburu digitala erabiltzen dute ikasleek eta horrez gain Classroom erraminta nahikotxu erabiltzen dugu.

Liburuko unitateek ikasleen bizitza errealekin konektatzen duten gai edo testuinguru espezifikoaren inguruan antolatuta egon ohi dira. Hiztegi eta egitura gramatikal berrien sarrera egiten da, testuen, audioen edo adibide bisualen bidez.

Beste alde batetik, Classroom erraminta erabiliz baliabide digitalak gehitzen dira, hala nola bideoak, aurkezpenak eta liburuaren edukia zabaltzen duten fitxa interaktiboak. Baita gelan ikasitakoa indartzeko esleitutako zereginak, hala nola, ariketa interaktiboak edo listeninga praktikatzeko audioak.

Bi baliabideen konbinazioak ikasteko estilo eta erritmo desberdinei erantzuteko aukera ematen du. Tresna digitalen eta baliabide interaktiboaren erabilerak ikasleen interesa areagotzen du. Ikasleek ikasitakoa testuinguru errealetan aplikatzen laguntzen dieten jarduera praktikoetan parte hartzen dute eta Google Classroom-ek etengabeko ebaluazioa eta jarraipen pertsonalizatua errazten ditu.

A.2. Multzokatzeak: Multzokatzeak malguak izango dira, batez ere taldeko jardueraren bat egin behar dutenean. Gela izatez, 4-5 pertsonako taldeetan egituratuta dago.

A.3. Espazioak: Ikasketa-espazio nagusia ikasgela izango da. Horrez gain, behar izatekotan beste espazioen batera mugitu gaitzke, behrrikanen arabera.

A.4. Baliabideak: Baliabide desberdinak erabiliko dira, besteak beste:

- Material multimedia eta interaktiboa (aurkezpenak egiteko batez ere).
- Inprimatutako baliabideak (errepaso fitxak), landutakoa indartzeko.

A.5. Jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak: Zenbait jarduera proposatuko dira, hala nola hizkuntza hirueleduneko proiektuko ekintzak.

B. Aniztasunari arreta:

Ikasleen aniztasunari erantzuteko, edukia eta jarduerak egokituko dira, ikasle bakoitzak bere ikaskuntza-erritmoaren eta premien arabera helburuak lor ditzan. Dibertsifikazio estrategiak erabiliko dira, hala nola laguntza-materialak, ikusizko laguntzak eta azalpen egokituak.

Zailtasunak dituzten ikasleei, lantzen dugun hiztegia sinplifikatu egingo zaie eta egindako frogak moldatu. Horrez gain, irakaslea ume horien gainean egongo da behar duten momentuetan lagundu al izateko.

Curriculum-a hasiera batetik egokitua egon behar da ikasleetara eta ez alderantziz. Horrela, curriculum pertsonalizatu eta praktikoagoa lortuz, non ikasle guztien beharrak erantzuten eta asetzen diren. Beraz, hori lortzeko Ikaskuntzaren Diseinu Unibertsala-ren (IDU) 3 printzipioak martxan jarri behar dira.

I. printzipioa: Ikasleei erraminta eta bide desberdinak emango zaizkie autonomiaz informazioa eta oinarrizko jakintzak eraikitzeko.

II. printzipioa: ikasleek ikasitakoa era desberdinetan adierazi ahalko dute: idatziz, ahoz eta abar. Bakoitzaren beharrietara moldatuko gara eta baita ebaluazioaren zein momentutan gauden.

III. printzipioa: ikasleek gelan landutakoa era desberdinetan landuko dute eta era horretan ikasle guztiak ikaskuntza prozesuan konprometitu eta motibatu daitezke era desberdinetan.

C. Ebaluazioa :

Ebaluazioa jarraia izango da, eta honela burutuko da:

- Behaketa zuzena, jarduera desberdinetan ikasleek duten errendimendua neurtzeko.
- Ebaluazio errubrikak erabiltzea, kompetentzia zehatz eta jarrerazkoak baloratzeko (erantzukizuna, ingurunea errespetatzea eta elkarlana).
- Frogak: reading, listening, grammar ebaluatzeko.

Gainera, ebaluazioaren barne dira ebaluazio kualitatibo eta kuantitiboak, edukien ulermena eta kompetentzien garapena neurtzeko.

D. Errefortzurako estrategiak eta berreskurapen-planak:

Kompetentzien ulermenean eta garapenean zailtasunak dituzten ikasleei laguntza eskainiko zaie:

- Banakako indartze-jarduerak eta talde txikietan.
- Tutoretza pertsonalizatuak eskaintzea, oinarriko kontzeptuak berrikusteko.

Ebaluazio-erabakiak, ebaluaziotik ateratako ondorioak eta kalifikazio-irizpideak

Ebaluazioa

- Helburua (formatiboa, akreditatzailea)
- Finkatutako denborak (hasieran, prozesuan zehar, amaieran)
- Ebaluatzeko teknikak, tresnak eta erramintak
- Eragileak (autoebaluatzea, elkarri ebaluatzea eta heteroebaluatzea)

- Helburua ebaluazio formatiboa izatea da.
 - Ebaluazio hezitzailea:
 - Ikaskuntza- irakaskuntza prozesuan zehar.
 - Informazio bilketa jarraia.
 - Ikaskuntza- irakaskuntza gidatzeko eta ikasleen jarduna hobetzeko erabiliko da.
 - Ebaluazio hezigarria: ikasleek bideratua.
- Finkatutako denborak: ebaluazioa prozesuaren hasieran, prozesuan zehar eta amaieran izango da.

	<ul style="list-style-type: none"> ● Ebaluatzeko teknikak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Behaketa etengabeen oinarrituta ○ Taldeko jarduerak → Oral projects ○ Froga. <ul style="list-style-type: none"> ■ Listening. ■ Reading. ■ Grammar and vocabulary. ● Eragileak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Koebaluazioak.
<p>Ebaluazioaren ondorioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Kalifikazioa 	<p>Ikasle baten ikaskuntzari buruzko ebidentzia asko eta anitzak eskuratu eta gero, ebaluaziotik eratortzen den kalifikazioa lortuko dugu.</p> <p>Konpetentzia espezifikoak oinarri hartuta egingo da eta hauen zehaztapen maila lorpen adierazleak izango dira.</p> <p>Ebaluaketa bakoitzaren amaieran boletin bate jasoko dute familiek. Boletin honetan irakasgai honetako konpetentzia espezifikoetan lortutako maila agertuko da: maila aurreratua, maila ertaina edo hasierako maila; kolorez adierazita.</p> <p>Honez gain, kurtso bukaeran eta Hezkuntza sailak ezarrita notak era kualitatibo baten jarri behar ditugu Hezkuntzako plataforman.</p>
<p>Kalifikazio-irizpideak</p> <p>Ikastetxearen autonomiaren baitan,</p>	<p>Azken kalifikazioa konpetentzia espezifikoaren ponderazioarekin lortuko da. Ondoren adierazten den konpetentzia espezifikoaren ponderazioa hartuko da kontuan.</p>

curriculumaren hainbat erabaki curricular hartuko dira, hala nola:

- Ikas-maila bakoitzerako lorpen-mailak erabakitzea
- Ebaluazio irizpideen jardun maila adostea.
- Gaitasunen garapen-maila adostea
- Berriazko gaitasunen ponderazioa,
- ebaluazio-irizpideak... definitzea)

* *Konpetentzia espezifiko guztien ponderazioa ez da zertan berdina izan.*

ZER	PORTZENTAIA	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK
1. HIRUHILEKOA		
1. Proiektua: Why have we got different hobbies?		
Grammar and vocabulary	%40	2, 4, 5
Listening	%20	1, 6
Reading	%20	1, 6
Oral	%20	2, 3, 4, 5, 6
2. Proiektua: Why do landscapes change?		
Grammar and vocabulary	%40	2, 4, 5
Listening	%20	1, 6
Reading	%20	1, 6
Oral	%20	2, 3, 4, 5, 6
2. HIRUHILEKOA		
3. Proiektua: Why do people like living in cities?		
Grammar and vocabulary	%40	2, 4, 5
Listening	%20	1, 6

	Reading	%20	1, 6
	Oral	%20	2, 3, 4, 5, 6
4. Proiektua: Why do we build skyscrapers in cities?			
	Grammar and vocabulary	%40	2, 4, 5
	Listening	%20	1, 6
	Reading	%20	1, 6
	Oral	%20	2, 3, 4, 5, 6
3. HIRUHILEKOA			
5. Proiektua: Why do we have to do housework?			
	Grammar and vocabulary	%40	2, 4, 5
	Listening	%20	1, 6
	Reading	%20	1, 6
	Oral	%20	2, 3, 4, 5, 6
6. Proiektua: Why can't we predict the future?			
	Grammar and vocabulary	%40	2, 4, 5
	Listening	%20	1, 6
	Reading	%20	1, 6
	Oral	%20	2, 3, 4, 5, 6



1.ERANSKINA: KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. . Argiro eta hizkuntza estandarrean adierazitako oinarrizko testu genero labur eta errazak ulertzea, hainbat estrategia erabiliz eta, beharrezkoa denean, hainbat laguntza mota baliatuz, zentzu orokorra eta informazio espezifikoa eta aurreikusteko modukoa ateratzeko eguneroko egoera komunikatiboetan.
- 2.Oinarrizko testu generoetako testu original errazak modu ulergarri eta egituratuan sortzea, plangintza edo konpentsazioa bezalako estrategiak erabiliz, berehalako mezu laburrekin lotutako mezu laburrak adierazteko eta eguneroko komunikazio-helburuei erantzuteko.
3. Beste pertsona batzuekin interakzioan jardutea, eguneroko esamoldeak erabiliz, kooperazioestrategietara joz, baliabide analogiko eta digitalak baliatuz eta adeitasun-arauak errespetatuz, beren intereseko berehalako beharrei erantzuteko.
4. Aurreikusteko moduko egoeretan bitartekari izatea, informazio oinarrizkoa eta erraza prozesatzeko eta transmititzeko estrategiak eta ezagutzak erabiliz, komunikazioa errazteko.
5. Hizkuntza-errepertorio pertsonalak antzeman eta erabiltzea, berau osatzen duten hizkuntzen funtzionamenduari buruz gogoeta eginez eta norberaren estrategiak eta ezagutzak identifikatuz, atzerriko hizkuntzaren ikasteko gaitasuna hobetzeko eta egoera ezagunetan komunikazio-behar zehatzei hobeto erantzuteko.
6. Atzerriko hizkuntzatik abiatuta, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna antzematea eta errespetatzea, hizkuntzen eta kulturen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak identifikatuz eta baloratzuz,kulturarteko egoerak kudeatzen ikasteko.

2. ERANSKINA: EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. KONPETENTZIA

1.1. Zentzu globala antzematea, interpretatzea eta aztertzea, baita hitz eta esaldi espezifikoak ere, ikasleen garapen-mailari egokitutako ahozko testuetan, idatzizkoetan eta multimodaletan, labur eta errazetan, modu ulergarrian, argian eta hizkuntza estandarrean adieraziz, hainbat euskarriren bidez.

1.2. Modu gidatuan, zentzu globala ulertzeko eta informazio esplizituak hainbat testutan prozesatzeko estrategia eta ezagutza egokiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea.

2. KONPETENTZIA

2.1. Aurrez prestatutako testu labur eta errazak ahoz adieraztea, hitzezko eta hitzik gabeko baliabideak modu gidatuan erabiliz, eta atzerriko hizkuntzak berezkoak dituen oinarrizko eta ohiko formak eta egiturak baliatuz.

2.2. Aldez aurretik prestatutako testu labur eta errazak antolatzea eta idaztea, proposatutako komunikazio-egoerara egokituz, tresna analogikoen eta digitalen bidez, eta erabili ohi diren oinarrizko egiturak eta lexikoa baliatuz.

2.3. Modu gidatuan, komunikazio-asmoetara, testuinguru-ezaugarrietara eta testu-tipologiara egokitutako testuak prestatzeko eta sortzeko, ezagutzak eta estrategiak hautatzea, antolatzea eta aplikatzea, baliabide fisikoak edo digitalak laguntzarekin erabiliz, unean uneko zereginaren eta beharren arabera.

3. KONPETENTZIA

3.1. Egoera interaktibo labur eta errazak planifikatzea eta horietan parte hartzea, zenbait euskarriren bidez, errepikapena, erritmo pausatua edo hitzik gabeko hizkuntza bezalako baliabideetan oinarrituz, eta enpatia eta errespetua erakutsiz hizkuntza-adeitasunarekiko eta etiketa digitalarekiko, baita solaskideen behar, ideia eta motibazioekiko ere, erabilera sexistak, arrazistak eta klasistak baztertuz.

3.2. Modu gidatuan eta eguneroko egoeretan, agurtzeko, despeditzeko eta aurkezteko, galdera errazak egin eta erantzuteko, mezuak adierazteko eta komunikazioa hasteko eta amaitzeko oinarrizko estrategiak hautatzea, antolatzea eta erabiltzea.

4. KONPETENTZIA

4.1. Testu, kontzeptu eta komunikazio labur eta errazak sortzea eta azaltzea, modu gidatuan, aniztasunari erantzun behar zaion egoeretan, solaskideekiko eta erabilitako hizkuntzekiko errespetua eta enpatia erakutsiz, eta ingurune hurbilean elkar ulertzeko eta aditzeko arazoak konpontzen parte hartzeko interesa erakutsiz, eta zenbait baliabide eta euskarri baliatuz.

4.2. Modu gidatuan, informazioa eta komunikazioa ulertzea eta sortzea erraztuko duten oinarrizko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, komunikazio-asmoetara egokituz, eta, laguntzarekin, baliabide grafikoak eta laguntza fisikoak edo digitalak erabiliz, unean uneko beharren arabera.

5. KONPETENTZIA

5.1. Hizkuntzen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak alderatzea eta egiaztatzea, haien funtzionamenduaren oinarrizko alderdiei buruz gero eta autonomia handiagoz gogoeta eginez.

5.2. Gero eta autonomia handiagoaz, atzerriko hizkuntzan komunikatzeko eta berori ikasteko gaitasuna hobetzeko ezagutzak eta estrategiak erabiltzea eta bereiztea, beste parte-hartzaile batzuen eta euskarri analogiko eta digitalen laguntzaz.

5.3. Modu gidatuan, atzerriko hizkuntza ikasteko aurrerapenak eta zailtasunak erregistratzea eta erabiltzea, hobetzen laguntzen duten alderdiak antzemanaz eta autoebaluazio- eta koebaluazio-jarduerak eginez, hala nola Hizkuntzen Portfolio Europarrean (HPE) edo ikaskuntza-egunkari batean proposatutakoetan.

6. KONPETENTZIA

6.1. Kulturarteko egoeretan estimuz eta errespetuz jokatzeko, hizkuntzen eta kulturen arteko loturak eraikiz, eta edozein motatako diskriminazioen, aurreiritzien eta estereotipoen aurrean gaitzespena erakutsiz.

6.2. Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna onartzea eta errespetatzea, norbera aberasteko iturri gisa, iraunkortasuna eta demokrazia sustatzen dituzten oinarrizko kultura- eta hizkuntza-elementuak ulertzeko interesa erakutsiz.

6.3. Modu gidatuan, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko oinarrizko estrategiak hautatzea eta aplikatzea, emakumeek aniztasun horretan egiten duten ekarpena aintzatetsiz eta baloratuz

3.ERANSKINA: OINARRIZKO JAKINTZAK

A. Komunikazioa

A.1. Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Lanaren antolamendua. Autoebaluazioa, koebaluazioa eta akatsa, hobetzeko tresna gisa.

A.2. Testu ahozko, idatzizko eta multimodal labur, erraz eta testuinguruan kokatuak ulertzeko, planifikatzeko eta sortzeko oinarrizko estrategiak.

A.3. Eguneroko oinarrizko egoeretan bitartekaritza-jardueretan hastapenak egiteko aukera ematen duten ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak.

A.4. Oinarrizko komunikazio-funtzioak, esparrura eta testuingurura egokituak: agurtzea, despeditzea, besteak aurkeztea eta norbera aurkeztea; sentimendu, emozio eta ideien adierazpen ez-estereotipatuak; pertsonak, objektuak eta lekuak deskribatzea; gertaerak denboran kokatzea; objektuak, pertsonak eta lekuak espazioan kokatzea; eguneroko gaiei buruzko informazioa eskatzea eta trukitzea; errutinak deskribatzea; argibideak eta jarraibideak ematea; atxikipena eta kantitatea adieraztea.

A.5. Oinarrizko testuinguru-ereduak eta genero diskurtsiboak; ahozko, idatzizko eta testu multimodalak, labur eta errazak, literarioak eta ez-literarioak ulertzeko, produzitzeko eta koproduzitzeko: ezaugarriak, eta barne-egituraren arabera testuingurua, antolamendua eta egituraketa.

A.6. Unitate horiei lotutako oinarrizko hizkuntza-unitateak eta esanahiak, hala nola honako hauen adierazpena: entitatea eta bere propietateak, kantitatea eta kopurua, espazioa eta espazio-erlazioak, denbora, baieztapena, ukapena, galdera eta harridura, oinarrizko erlazio logikoak.

A.7. Ikasleentzat interesgarria izango den oinarrizko lexikoa, honako hauei buruzkoa: identifikazio pertsonala, hurbileko pertsonen arteko harremanak, gertuko leku eta inguruneak, aisia eta denbora libre, eguneroko bizitza analogikoa eta digitala

A.8. Oinarrizko soinu-, azentu-, erritmo- eta intonazio-patroiak, eta patroik horiei lotutako komunikazio-funtzio orokorrak.

A.9. Oinarrizko konbentzio ortografikoak eta formatu eta elementu grafikoei lotutako esanahiak.

- A.10. Oinarrizko konbentzioak eta elkarrizketa-estrategiak, formatu sinkronoan edo asinkronoan, komunikazioa hasteko, mantentzeko eta amaitzeko, hitza hartu eta lagatzeko, argibideak eta azalpenak eskatu eta emateko, alderatzeko eta egiaztatzeko, kolaborazioan aritzeko, etab.
- A.11. Ikaskuntzarako baliabide, eta bitarteko analogiko eta digital seguruetan egindako bilaketa gidatuetan lortutako informazioaren fidagarritasuna eta egokitasuna bereizteko estrategiak.
- A.12. Kontsultatutako iturrien eta erabilitako edukien jabetza intelektuala.
- A.13. Ahozko eta idatzizko testu analogiko eta digitalen aurkezpen zaindua.
- A.14. Kooperazio-estrategia errazak eta talde-lanean esleitutako erantzukizun indibidualak nor bere gain hartzeko estrategiak.
- A.15. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak.
- A.16. Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalen erabilera.
- A.17. Literatura-testua eta irakurketaren balorazioa gozamen-iturri bezala, adierazpen artistiko eta kulturaletara hurbiltzeko eta hizkuntza eta norbera aberasteko.

B. Eleaniztasuna

- B.1. Behar jakin bati eraginkortasunez erantzuteko komunikazio-gabeziak konpentsatzeko estrategiak eta teknikak, atzerriko hizkuntzan eta hizkuntza-errepertorioko hizkuntzetan konpetentzia-mailaren ondoriozko mugak izan arren.
- B.2. Hizkuntza-unitateak (lexikoa, morfosintaxia, soinu-patroiak, etab.) identifikatu, antolatu, atxiki, berreskuratu eta erabiltzeko oinarrizko estrategiak, norberaren hizkuntza-errepertorioa osatzen duten hizkuntzen eta aldaeren konparaziotik abiatuta.
- B.3. Autoebaluaziorako eta koebaluaziorako oinarrizko estrategiak eta tresnak, analogikoak eta digitalak, indibidualak eta kooperatiboak (ikaskuntza-egunkaria, portfolioa, errubrikak, ebaluazio-ituak...).
- B.4. Komunikazioari, hizkuntzari, ikaskuntzari eta komunikazio- eta ikaskuntza-tresnei (metahizkuntzari) buruzko enuntziatuak ulertzeko erabili ohi diren lexikoa eta esamoldeak.

B.5. Hizkuntzen arteko oinarrizko konparazioa, atzerriko hizkuntzaren eta beste hizkuntza batzuen elementuetatik abiatuta: jatorria eta ahaidetasunak.

C. Kulturartekotasuna

C.1. Atzerriko hizkuntza, beste herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa, informazio berria eskuratzeko modu gisa eta kultura eta bizimodu desberdinak ezagutzeko bitarteko gisa.

C.2. Atzerriko hizkuntzako hitzunekin edo ikasleekin harremanak ezartzeko eta komunikatzeko interesa eta balorazio positiboa.

C.3. Atzerriko hizkuntzak berezko dituen eta maiz erabiltzen diren oinarrizko kultura-ereduak.

C.4. Oinarrizko eta ohiko alderdi soziokulturalak eta soziolinguistikoak, genero-ikuspegiaz, atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdeek berezko dituzten ohiturei, eguneroko bizitzari eta pertsonen arteko harremanei, erabili ohi diren oinarrizko gizarte-konbentzioei, hitzik gabeko hizkuntzari, hizkuntza-adeitasunari eta etiketa digitalari buruzkoak.

C.5. Erabili ohi diren oinarrizko estrategiak, hizkuntza-, kultura- eta arte-aniztasuna ulertzeko eta estimatzeko, balio ekosozialak eta demokratikoak kontuan hartuta.

C.6. Parte-hartze gero eta autonomo eta aktiboagoa, kooperatibo eta errespetuzkoagoa, planifikatutako komunikazio-trukeetan eta/edo proiektuetan, zenbait bitartekoren bidez, atzerriko hizkuntzako ikasleekin.